

ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEN DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETA ARAUTU BEHAR DUTEN ARAUAK (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA).

Ideien Lehiaketaren ekimena sustatu duen Batzordearen leloa:

Lanaren bidez gure lurralde estuan denontzako gizabide bizigarritzagoek eratuko ditugu eta lurralde hau edergarrituko dugu.

Gure kidesan berrietan txertatuko ditugu auzo eta herri; herri eta beste guziak: "aurrera betik".

On José María Arizmendiarieta.

(1915-1976).

Por medio del trabajo desarrollaremos un porvenir más prospero para todos en nuestra estrecha tierra y la embelleceremos.

En nuestra colaboración integraremos a barrios y pueblos y a todos los demás: "adelante siempre".

Don José María Arizmendiarieta.

(1915-1976).

LEHIAKETAREN ANTOLAKETARI BURUZ

1. LEHIAKETAREN XEDEA

San Josepe harrobia, Arrasateko udalerrian, hirigunetik oso gertu dagoen eremu batean dago; 50 urtetik gora ustiatu dute harria ateratzeko. Horren ondorioz, gaur gaurkoz horren barne bolumenak hartzen du 1.200.000 m³ baino txikiagoa ez den espazio bat (milioi bat eta berrehun mila metro kubiko).

Laster batean betiko itxiko dute harrobia (une honetan zaharberitze lanak egiten dihardute eta Kurtzetxiki Eibar-Gasteiz autopistako tuneletik ateratako harria ustiatzen dihardute), eta barne bolumenaren ikuspegia da ikaragarria, bai ikus eraginaren aldetik bai ingurumen aldetik errekupeatzeko ikuspegitik eta erabilera berriez espazio hori okupatzeko ikuspegitik.

Arrasateko Udalak Lehiaketa hau sustatu du, proposamen bat aukeratzeko, eta proposamen horretan kontuan hartuko dira, batetik, arkitektura, paisaia eta ingurumen kalitatea eta, bestetik, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta inguruarekin bat egiteko bideragarria den, Epaimahaiak baloratu dezan zein den egokiena San Josepe harrobian gauzatzeko, arau hauetan xedatutakoaren arabera.

Oro har, Ideien Lehiaketak helburu hauek lortu nahi ditu:

- San Josepe harrobiko hutsartea erabiltzea jasotzen duen hirigintza proiektu bat garatzeko bideragarritasunari buruzko irizpideak garatzea, oraingo ikus eragina ahalik eta txikiena izateko.



- Kontzientzia eta eztabaida sortzea, lerro hauek artikulatzen dituen eraikuntza proiektu bat garatzeko dauden benetako aukerei buruz:
 - Harrobiko hutsartean dagoen bolumenean erabilera sozialak eta pribatuak egin ahal izateko bideak garatzea.
 - Arkitektura eta paisaia arloko soluziobideak, harrobiko kanpoko espazioaren ikus eta ingurumen eragina murrizteko.
 - Lurzoruaren erreserba estrategikoak sortzea, epe ertain eta luzera geroago erabiltzeko.
 - Bide batzuk jorratzea, energia kontserbatu eta aurrezteko, energia baliatzeko eta energia berriztagarriak sartzeko teknologiak izan ditzagun.

2. LEHIAKETAREN ANTOLATZAILEA ETA IDAZKARITZA.-

Arrasateko Udalak antolatu du Lehiaketa.

Udaleko Hirigintza Sailak hartuko du bere gain Lehiaketaren idazkaritza; hona hemen harremanetarako datuak:

- Helbidea: Arrasateko Udala
Hirigintza Saila
Herriko plaza nagusia, 1
20500 – Arrasate
- Telefonoa: 943 25 20 05 / 943 25 20 00
- Fax: 943 25 20 55
- Web orria: <http://www.arrasate-mondragon.org>
- Posta elektronikoa:
azabala@arrasate-mondragon.net
jaurdangarin@arrasate-mondragon.net

3. LEHIAKETAREN BABESLEAK.-

Lehiaketa honen babesle ekonomikoak eta moralak dira Erakunde, Entitate eta sozietate hauek:

- Arrasateko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Diputatu Nagusia, Garapen Iraunkorreko Departamentua eta Lurralde Antolamendu eta Sustapeneko Departamentua
- Eusko Jaurlaritza: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Energiaren Euskal Erakundea (EEE, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako sozietate publikoa)
- SPRILUR (Lurzorua eta Industria Eraikuntzak sustatzeko Sozietatea; Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako sozietate publikoa)
- MCC fundazioa

4. LEHIAKETAREN EPAIMAHAIAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUK.-

Lehiaketaren Epaimahaian ordezkartza izango dute Erakunde eta Elkargo Profesional hauek, kontuan izanik haien jakintza teknikoa eta Lehiaketa prestatzean eman duten laguntza:

- Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofiziala

5. LEHIAKETA MOTA.-

Ideien Lehiaketa bat da, irekia, baina Epaimahai batek esku hartzen du.

Sariak izango dira eskudirutan, eta Lehiaketak berez ez du esan nahi Ideia garatzeko Proiektu Teknikoak aginduko zaizkiola lehiaketa irabazleari.

Geroago, Udalak egoki iritziz gero, irabazle horrekin gauzatu ahal izango du dagokion kontratua edo dagozkion kontratuak, dagozkion agiri teknikoak idazteko, eta indarrean dagoen administrazio kontratazioaren legerian xedatutakoa hartuko da kontuan.

San Josepeko harrobiaren hutsartean hirigintza eta arkitektura arloko esku-hartzeak gauzatzeko Ideiak lortzea da kontua, aurrerago aurkeztuko ditugun helburuen arabera.

Bi fasetan garatuko da lehiaketa; horietako batean agertuko da aurkeztutako proposamenen erakusketa bat egitea eta herritarrek parte hartzeko prozesu bat garatzea.

Lehiaketaren segida hauxe izango da:

- **Lehen fasea:** lehiaketa irekia, gehienez 5 proposamen aterako dira. Honek aukeratuko du:
 - Epaimahaiak 4 proposamen finalista aukeratuko du.
 - Herritarrek, kontsulta publikoaren bidez eta antolatuko den botazioaren bidez, 5. proposamen finalista aukeratuko dute.

Aurrekoaren ondorioetarako, Lehiaketan aurkeztutako proposamen guztiak jende aurrean jarriko ditugu Arrasateko Kulturate kultura etxean. Erakusketa horretan jakin eta aztertuko dituzte herritarrek zer proposamen aurkeztu diren, eta hor emango dute botoa egokienaren alde.

- **Bigarren fasea:** Aukeratutako 5 proposamenen egileei mugatutako lehiaketa, eta hortik aterako da proiektu irabazlea.

LEHIAKETAREN XEDEARI BURUZ ETA LORTU NAHI DITUGUN HELBURUAK

A: ESKU HARTUKO DEN EREMUA: SAN JOSEPEKO HARROBIA

6. HARROBIAREN KOKALEKUA ETA LURRALDEAREKIN DUEN AHAIDETZA.-

Udalerriko erdialdeko hegoaldean dago, Aretxabaletarantz eta Arabarantz duen irteera tokian. Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorreko agirian dago AE 58.- SAN JOSEPE HARROBIA eremuan. Mendebaldean muga du Arrasateko saihebidarekin, GI-627 errepidea, eta saihevide horretatik Arrasaterako sarbideetako batekin. Eremuaren hegoaldean garatzen da Eibar-Gasteiz autopistaren trazatua, zeharkatzen duena (zati batean tunelean, beste batean aire zabalean), bai eta Bedoña auzora iristeko bidearen errepide hasiera ere.

Saihebidetaren beste aldean, hirigunetik gertu dauden eremuetan etxebizitzak hezkuntza eta industria ekipamenduak daude, eta horregatik zaila da eraikitako hiria uztartzea San Josepeko harrobiaren eremuarekin.

Hortik gertu, hego-mendebalderantz, Fagor taldeko hainbat enpresaren jardura hartzen duen industrialdea dago.

Ipar eta Ekialdean harrobiaren goi kotak muga egiten du Kurtzetxiki mendiarekin, udal titularitatekoa; mendi horren adarrak doaz haranaren leku sakonenetaraino, herriaren erdialdean.

7. HIRIGINTZAKO AURREKARIAK.-

AE 58.- SAN JOSEPE HARROBIA eremua jasota dago indarrean dagoen Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorrean, lurzoru hiritargari moduan, jardura ekonomikoen erabilerekin. Erabilera nagusiak dira industria erabilera arrunta eta industria erabilera mistoa. Eremu horren hirigintza egoera da:

- Planeamendu orokorra 2003ko apirilaren 8an onartu zuen Udalak, eta gaur egun eremuari dagozkion zehaztapenak jasota daude Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorrearen I. Testu Bateratuan. Aplikatu beharreko hirigintza fitxaren arabera, onartutako Plan Partzialeko antolamendua bidali dugu.
- AE 58.- SAN JOSEPE HARROBIA eremuaren Plan Partziala izapidetu zuen eta behin betiko onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2003ko maiatzaren 13an egindako bilkuran.
- Gaurko egunean oraindik hasi barik dago eremuaren hirigintza kudeaketa.
- Jabetzaren egitura honela dago osatuta, gutxi gorabehera: San Josepe harrobiak 44.721,86 m², Udalak 11.781,15 m², beste jabe batzuek 10.540,59 m², autopistak eragindako lursailak 25.078,40 m². Eremuaren azalera guztira da 92.122 m².



- Arrasateko Udalak hainbat hirigintza hitzarmen sinatu du (1993an, 1995ean, 2004an eta 2007an) harrobiaren jarduerako titularrarekin, denbora ikuspegitik harrobitik ateratzen denaren jarduera mugatzeko, eta hura lagatzen duten ulean birkalifikatzeko lurzoru hiritargarri moduan, lursaila errekuperatzeko helburua lortze aldera, etorkizunean industrialde bat jartzeko hor.
- Kontuan izanik AE 58.- SAN JOSEPE HARROBIA eremuaren Plan Partziala oraindik exekutatu barik dagoela, Udalak hausnarketa aldi bat ireki du harrobiaren hutsarte horren etorkizunari buruz, eta horren ondorioz Plan Partzial horren zehaztapenak berretsi edo aldatzeari buruz. Hausnarketa prozesu horretan inkardinaturik dago Ideia Lehiaketa hau, eta horren bidez lortu nahi dugu harrobiaren leku hori erabiltzeko proposamen berri bat.

B: LORTU NAHI DITUGUN HELBURUAK

8. LEHIAKETAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK.-

Modu espezifikotan, San Josepeko harrobiaren hutsartearen eta Arrasatetik gertuko ingurunearen etorkizuneko diseinua egiteko ideien lehiaketaren helburua da, besteak beste, hauek egin ahal izateko soluziobideak bilatzea:

- Ahalik eta modurik onenean txikitzea harrobiaren hutsarteak mendian sortzen duen ikus eta paisaia eragina, oso kalteturik dagoen gune batean ingurumena errekuperatzeko proiektua bat garatzeko, eta, horrela, ekintza positiboa sortzea, Arrasaten gune fisiko horren oraingo hondamenari aurre egiteko.
- Ahalik eta modurik onenean txikitzea ere Eibar-Gasteiz autopistak AE 58.- SAN JOSEPE HARROBIA eremutik pasatzean sortuko duen eragin kaltegarria.
- Berrerabili eta aprobetxatzea ahalik eta modurik egokienean harrobiaren hutsarteak ematen digun gune fisiko zabala, eta horretarako hirigintza eta eraikuntza proiektu bat diseinatzea, leku horren gizarte eta ekonomia arloko berrerabilera altua izateko, bai eta hor planteatuko diren erabilerenak eta eraikuntzenak ere. Eraikigarritasunak, proposatutako erabilerak eta egokitzat jotzen diren gainontzeko aldagaiek bermatu egin behar dute esku-hartzearen bideragarritasun ekonomikoa eta soziala, bere osoan. Horregatik, lehiatzaileek aztertu beharko dute zer planteatu, adibidez, irabazteko erabilerak, hornitzeko erabilerak eta/edo horien arteko proportzioa. Orientazio gisara, harrobiaren hutsartean kokatu daitezkeen erabilerak batzuk zerrendatu ditugu:
 - Bizitegia edo etxeak: betiko bizitegiez gain, lehiatzaileek aztertu dezakete estandarra ez den familia egituretarako edo beste kolektibo batzuen egituretarako lojamendu tipologia berriak sortzeko aukera.
 - Jarduera ekonomikoak, bate zere zerbitzuei lotutakoak, baina industria erabilerakoren bat alboratu gabe.
 - Eremu ludikoa eta sozializatzekoak.
 - Hornidura publikoa, aisialdiari, denbora libreari eta kirolari lotutakoak barne.



- Lurzoruaren erreserba estrategikoak, epe ertain eta luzera garatzeko.
- Uztartzea proiektua bere gertuko ingurunearekin, diseinuak jaso dezan ere zelan ezarriko den modu egokian lurralde horretan eta harrobiaren oraingo gune fisikoak izan dezan irisgarritasun egokia, oinezkoen irisgarritasunaren ikuspegitik nahiz trafikoaren ikuspegitik (motorduna eta motor gabea). Orain dauden sarbide zailtasunak eta oztopo arkitektonikoen zailtasunak gainditzea da helburua, izan ere, proposatutako proiektuaren erabilera eta aprobetxamendu egoki, eraginkor eta zuzena praktikatzeko, guztiz ezinbestekoa da erraztea, maila guztietan, espazio edo gune horretara iristeko bidea.
- Harrobi ingurutik gertu dauden eskualde apalak biziberritzeko motoreak izan daitezkeen proiektu bat proposatzea.
- Berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzea, arkitekturan, ingeniartzan, iraunkortasunean, energia aprobetxamenduan (kontserbazioa eta aurrezpena; aprobetxamendua eta energia berriztagarriak).
- Oro har, Euskal Herriko harrobi guztietan errepikatu daitezkeen kontzeptu berritzaileak garatzea. Hain zuzen ere, harrobiak erreperatzea ezinbesteko lana izango da, gure herrialdean leku gutxi baitugu, eta Lehiaketa honek lortu nahi du halako proiektuetan maila kualitatibo handiko joera bat ezartzea, antzeko arazoak dituzten beste udalerrri batzuetan antzeko proposamenetan erreferentzia izateko, adibidez, Makina, Durango, Elgoibar, Deba, Andoain, Urnieta, Zestoa, eta abar moduko herrietan.

9. HARROBIAREN HUTSARTEAK OSATZEN DUEN GUNEAK IZAN DITZAKEEN DESTINOAK.-

Aurreko arauan aipatutakoaren arabera, orientazio gisara, hona hemen San Josepeko harrobiaren hutsarteko gunea izan ditzakeen erabilerak:

- **Bizitegia edo etxeak:** betiko bizitegiez gain, lehiatzaileek aztertu dezakete estandarra ez den familia egituretarako edo beste kolektibo batzuen egituretarako lojamendu tipologia berriak sortzeko aukera. Izan ere, gaurko egunean, salbuespenak salbuespen, Arrasaten dagoen etxe eskaintza da betiko familiarentzat eskaintzen dena. Aztertu liteke beste mota bateko etxebizitza, langile flotatzaileentzat, ikasleentzat, gazteentzat edo beste kolektibo batzuentzat.
- **Jarduera ekonomikoak:** oro har hirugarren sektoreari lotutakoa izan liteke, adibidez, zerbitzuak, bizitegiak erabilerari atxikitako hurbileko merkataritza, eta abar. Edo aztertu liteke ere bulego mota berri bat garatzea, behar hauei erantzungo lukeena: hirugarren sektoreko jardueren zentroa, zerbitzuen eta bulego profesionalen zentroa (“Bulego-aldea”), edo enpresak inkubatzeko eremu bat. Hori ez da oztopoa edo traba industria erabilera bateragarriak ere planteatu ahal izateko.
- **Eremu ludikoak eta sozializatzeak.** Arrasateko baldintza klimatologikoak, muturrekoak izan barik, esan genezake klima atlantikoari dagozkiola, euri ugari egiten duelarik. Horregatik, proposamenak aintzat hartu lezake gune estaliak izatea, sozializatu, bildu, paseatu, jolastu, eta abar egiteko. Eremu horietako batzuk izan litezke barne eta kanpo gune errepresentatiboak (geroago erakutsiko diren kontzeptuak).
- **Hornidura publikokoa:** aisiari (naturari, hurbileko inguruneari edo ingurumenari lotua), denbora libreari eta kirolari lotutakoak barne.



- **Lurzoruaren erreserba estrategikoak:** Epe ertainera eta epe luzera garatzeko.

Osagarri moduan, agertu eta azpimarratu nahi dugu bi elementu berezi hauek aztertzea komeni dela:

Barne gune errepresentatibo bat garatzea: lehiatzaileek barne gune berezi baten ikuspegia eskaini beharko dute, Harrobiaren bolumenaren barnealdean sartzen dena.

Kanpo gune errepresentatibo bat garatzea: lehiatzaileek tratamendu egokia eskaini beharko diote Eibar-Gasteiz autopistako tunelen sarrera-irteerari San Josepeko harrobian, izan ere, autopista hori bihurtuko da ardatz garrantzitsu iberiar penintsula eta Europako gainerako herrialdeak lotzeko; autopistan milaka bidaiari ibiliko da, eta komeni da harrabiko hormatzarrak gaur egun ematen duena baino ikuspegi hobea eskaintzea.

Horregatik komeni da ideietan jasotzea tunelaren sarreraren tratamendu egokia, proiektua garatzeko eskainitako proposamenen testuinguru orokorrean. Baloratuko da sarrera horrek izatea zerbait erakargarria ikusgarritasunaren, estetikaren edo eskulturaren aldetik, erakargarria izan dakien autopistatik ibili dabilzan pertsoneri.

10. GARAPEN EREDUARI BURUZKO HAINBAT HAUSNARKETA.-

Lehiatzaileek askatasun osoa izango badute ere proposamenak garatzeko, horien bideragarritasun eraginkorra bermatze aldera, aintzat hartu ahal izango dira hauek guztiak, proiektua gartzeko moduari dagokionez:

- Proposatutako proiektua izango da bideragarria, ekonomiaren ikuspegitik; horretarako, irabazteko asmoa duten aprobetxamenduek, gutxienez, hornidura publikoko aprobetxamenduen zati bat finantzatu beharko dute, bai eta egin beharko diren urbanizazio obrak ere.
- Proiektua bideragarria izango da, eraikitze ikuspegitik, haren denbora garapenean, eta, horretarako, interesgarria izan daiteke begiratzea esku-hartze modularrak, proiektua apurka-apurka giten joateko.
- Harrobiaren dimentsioa dela-eta, proposatutako soluziobideek aintzat hartuko dute garapen fase bakoitza proiektatu behar dela ikuspegi finalista batetik, hau da, tarteko soluziobideak edo faseak proiektatu behar direla ikuspegi honetatik, jarraipena, gero garapen faseetan, luzatu egin daitekeela.
- Era berean, tarteko denbora soluziobideek, ingurumen, energia ikuspegitik edo guneak aprobetxatzeko ikuspegitik, bide eman behar dute horiek berriro erabiltzeko, gero garapen faseetan.

SARIEI, EPAIMAHAIARI ETA PROZESUAREN EGUTEGIARI BURUZ

11. SARIAK.-

Lehiaketak sari hauek izango ditu:



- **Lehiaketaren lehen fasea:** lehiaketan finalista geratzen den egile bakoitzak 10.000 euro jasoko du. Sari hori kobratzeko, Lehiaketaren 2. fasean parte hartu beharko dute, arau hauetan adierazitako baldintzen arabera.

Proiektuak jende aurrean erakutsi eta gero emango dira sariak.

- **Lehiaketaren bigarren fasea:** lehiaketaren irabazleak lehen saria jasoko du, 88.000 euro. Bigarren saria izango da 12.000 euroko kopurua.

Sariok diru bihurtuko dira emaitzen berri eman eta 30 eguneko epean.

- **Aipamenak:** Epaimahaiak erabaki dezake zein proiektuk merezi duen aipatzea.

Lehiaketa ezerezean geratu dela adierazi dezake epaimahaiak, baldin eta uste badu ezin dela eman lehen saririk, helburuak betetzeko nahiko ona ez den proiekturik ez dagoelako.

Epaimahaiak hainbat proiektu aukeratuz gero Lehiaketaren irabazle (lehen saria berdindurik), saria banatuko da irabazle guztien artean.

12. EPAIMAHAIA.-

Lehiaketan parte hartzen duten Administrazioek eta beste entitate batzuek izendatutako pertsona fisiko independenteek osatuko dute Epaimahaia.

- **Epaimahaiburua:** Arrasateko Udaleko alkatea edo berak delegatzen duen pertsona.
- **Epaimahaikideak:**
 - Arrasateko Udaleko Hirigintza saileko burua.
 - Arrasateko Udaleko Obretako saileko burua.
 - Arrasateko Udaleko Ingurumen teknikaria.
 - Arrasateko udal arkitektoa.
 - Gipuzkoako diputatu nagusia, edo hark delegatzen duen Lehendakaritza Departamentuko pertsona.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuko diputatua, edo hark delegatzen duen Departamentuko pertsona.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Sustapeneko Departamentuko diputatua, edo hark delegatzen duen Departamentuko pertsona.
 - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko sailburua, edo hark delegatzen duen Saileko pertsona.
 - Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko sailburua, edo hark delegatzen duen Saileko pertsona.
 - Energiaren Euskal Erakundearen ordezkari bat (EEE-EVE).



- SPRILUREn ordezkari bat.
- MCC Fundazioaren ordezkari bat.
- San Josepeko harrobirako Ideien Lehiaketaren ekimena sustatzeko Batzordeko hiru ordezkari.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoaren ordezkari bat.
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren ordezkari bat.
- Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofizialaren ordezkari bat.
- **Idazkaria:** Arrasateko Udaleko Hirigintza saileko administrazio orokorreko teknikaria izango da.

13. LEHIAKETAREN EGUTEGIA.-

Lehiaketa hau aginduko duten arauak onartzea:	2008/04/03
Lehiaketaren deialdiaren iragarkia aldizkari ofizialetan (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala-EAO, Estatuko Aldizkari Ofiziala-BOE, EAeko Aldizkari Ofiziala-EHAA, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala-GAO)	2008/04/21
Izena emateko epea ixtea: 30 egun natural, Lehiaketa iragartzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO)	2008/05/21
Kontsultak hartzea: 30 egunera arte, Lehiaketaren deialdia iragartzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO)	2008/05/21
Izena emandako profesionali baieztatuko zaie gauzatu den edo ez izena ematea.	2008/06/09
Lehiaketaren lehen faserako proposamenak hartzea	2008/09/30
Proposamenen erakusketa publikoa hastea	2008/10/13
Finalista bat aukeratzeko, herritarren kontsulta irekia bukatzea	2008/11/10
Epaimahaiaren erabakia, Lehiaketaren lehen faseari dagokionez	2008/11/26
Lehiaketaren bigarren fasea hastea: Lehiaketa mugatua hastea, aukeratutako 5 egileekin	2008/12/15
Lehiaketaren bigarren faserako proposamenak hartzea	2009/03/06
Proposamenen azalpen hitzaldietako azkena	2009/03/19
Epaimahaiaren erabakia, Lehiaketaren bigarren faseari dagokionez	2009/04/02



LEHIAKETAREN GARAPENARI BURUZ

14. LEHIATZAILEAK.-

Lehiaketa da Hiri eta Arkitektura proiektuen eremuari lotutako talde profesionalentzat (arkitektoak, hirigileak, paisajistak, injineruak ...), beste diziplina batzuetako profesionaleik atxikita egon edo ez.

Bakarka edo diziplina anitzeko taldeak osatuz parte hartu ahal izango dute, eta Lehiaketaren helburuarekin bat datozen gizarte helburuak dituzten pertsona fisikoek ere, betiere taldeko burua bada arkitektoa edo goi mailako injinerua.

Parte hartzaile bakoitza talde bakar batekoa izan daiteke, titular moduan edo kolaboratzaile moduan, eta proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du bakarrik.

Taldeko burua.

Gestioan azkarrago aritzeko, taldeko burua solaskide bakarra izango da Lehiaketako antolatzaileekin jarduteko.

Taldeko burua elkartekideen artean aukeratuko dute eta arkitektoa edo goi mailako injinerua izango da, eta legez ahalmena izango du Europar Batasunean lanbidean jarduteko, gaitasun osoa izango du jardun eta kontratatzeko, Espainiako eta Europako Administrazio Publikoetako kontratuen legeriaren arabera.

Arkitekto edo goi mailako injineru batek ahalmena du Europar Batasunean legez jarduteko, baldin eta dagokion titularen jabe bada, edo Espainiako titulua edo Europakoa, legez homologatu daitekeena Espainiakora.

Taldeko buruaren postako helbidea eta posta elektronikoaren helbidea emango dira, Arrasateko Udalaren eta lehiatzaileen arteko behar diren harremanak izateko.

15. DEIALDIA, IZENA EMATEA ETA ORDEZKARITZA.-

A.- DEIALDIA

Lehiaketaren deialdiaren berri emango dugu iragarkien bidez Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean-EAO, Estatuko Aldizkari Ofizialean-BOE, EAEko Aldizkari Ofizialean-EHAA, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean-GAO) eta Arrasateko Udalaren web orrian (URL <http://www.arrasate-mondragon.org>).

B.- IZENA EMATEA

Lehiaketan izena eman nahi dutenek Izena emateko orria aurkeztu beharko dute udaletxean, arau hauekin batera I. Eranskinean datorren ereduaren arabera beterik. Zehaztuko dute pertsona fisikoek, sozietateek, edo talde mistoek (sozietateak eta pertsona fisikoak) osatutako taldeak diren.

Izena emateko epea 30 egun naturaleko izango da, Lehiaketa iragartzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO).

Lehiaketa izena emateko, interesdunek 50 euroko kuota bat ordaindu beharko dute, kopuru hori sartuko dute Arrasateko Udalak Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA) banketxearen sukurtsalean irekita duen 01825709450200003062 zk.ko kontu korrontean, Donostiako Askatasunaren Hiribidea 36an (PK 20004), eta adieraziko da zeinek egin duen diru-sarrera.

Espainiatik kanpo egin daitezkeen transferentziak egiteko, BIC kodea da BBVAESMMXXX eta bankuko kontuaren nazioarteko kodea da hauxe: IBAN ES60 0182 5709 4502 0000 3062.

Lehiaketan izena emateko eskabidea, izena emateko kuotaren ordainagiriarekin batera, Udaleko sarrera erregistroan BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua) aurkeztuko da, Maisu Arano pasealekua 8an.

Izena emateko epea bukatu baino lehen Udaleko sarrera erregistrora posta bidez iristen diren eskabideak ere onartu egingo dira. Epe hori igaro eta gero 10 egun naturalera arte iristen direnak onartuko ditugu, baldin eta gorabehera hauetako bat betetzen bada bakarrik:

- Bidali badute posta ziurtatuaz, izena emateko epea bukatu baino lehen.
- Lehiaketako idazkariari (Hirigintza sailekoa) jakinarazi badiote bidali dutela telex, fax edo telegrama bidez, eta egiaztatu beharko dute postaz bidali zuten egun berean bidali zutela eskabidea.

Jasotako eskabideen zerrenda bat egingo du idazkariak. Zerrenda hori ez du argitaratuko, parte hartzaileen anonimatua gordetzeko. Edonola ere, komunikazio bat bidaliko diogu parte hartzaile bakoitzari, izena eman duela baieztatzeko.

C.- LEHIAKETAKO ARAUAK ETA AGIRIAK LORTZEARI BURUZ

Arrasateko Udalaren web orriaren bidez (URL <http://www.arrasate-mondragon.org>) argitaratuko dira Lehiaketako arauak, horien berri ematen denetik, eta edozeinek izango ditu eskura kontsultak egiteko, nahiz eta izenik eman ez lehiaketan.

Informazio hori eta Lehiaketari buruzko beste edozein eguneratu egingo dugu lehiaketa garatu ahala.

Zailtasunak izanez gero web orritik agiriak deskargatzeko, izena eman dutenek eskatu ahal izango diote Lehiaketako idazkariari posta elektronikoz edo CD batean bidaltzeko, web orriaren bidez emandako eduki berberarekin.

Lehiaketako idazkariaren harreman datuak dira:

Arrasateko Udala

Arrasateko Hirigintza Saila

San Josepeko harrobiaren I deien Lehiaketako idazkaria

Herriko plaza nagusia, 1

20500 – Arrasate

Telefonoa: 943 25 20 05 / 943 25 20 00



Fax: 943 25 20 55

Posta elektronikoa: azabala@arrasate-mondragon.net // jaurdangarin@arrasate-mondragon.net

D.- LEHIATZAILEEN ESKURA DAGOEN INFORMAZIOA

Arrasateko Udalaren web orriaren bidez San Josepeko harrobiaren kokalekuaren fitxa bat emango dugu.

Gaika banaturik, informazio hau izango du fitxa horrek:

- Arrasateko planoak, San Josepeko harrobiaren eremua kokatzeko, eskala grafikoarekin.
- Arrasateko airetiko argazkia.
- Lurralde eskalako planoak (hiri geografia) edo hiri eskalako planoak (aglomerazioak), eskala grafikoarekin (1/50.000 eskalatik hasi eta 1/20.000 eskala arte).
- San Josepeko harrobiaren airetiko argazkia, kokalekua eta proiektu eremua mugatzeko.
- San Josepeko harrobiaren planoak, eskala grafikoarekin.
- Eremuaren planoak, kokalekua mugatzeko, eskala grafikoarekin.
- Eibar-Gasteiz autopistaren trazatuaren planoak, San Josepeko harrobiaren irteera lekuan, eskala grafikoarekin.
- Errepidera iristeko oraingo bide sarearen eskema agertzen duen planoak.
- Kokalekuaren argazki ikuspegien sorta bat, elementurik esanguratsuenak islatzeko (topografia, natura, perspektibak, hainbat eta hainbat orientazio eta altueratik).
- Power-Point aurkezpena, Lehiaketako sustatzaileek erabili dezaten erakunde babesleekin harremanak izateko.
- Agiri osagarri bat, jarduera lagatzen den unean harrobia zer-nola egongo den jakiteko.

E.- INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Kontsultak posta elektronikoz egingo zaizkio Lehiaketako idazkariari, Lehiaketan izena emateko epean.

Lehiaketako idazkariak aztertuko ditu kontsultak, eta behar duen aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango du.

Lehiaketako idazkaria saiatuko da kontsultei erantzuten, horiek jaso eta 15 egun baliodun baino txikiagoa den epe batean.

Arrasateko Udaleko web orrian argitaratuko ditugu planteatutako gai guztiak eta emandako erantzunak.

Halaber, planteatutako kontsulteren eta haien erantzunen zerrenda jasoko du Epaimahaiak.



F.- AURKEZPEN PUBLIKOAK, LEHIAKETAN INTERESA ERAKUSTEN DUTENENTZAT

Izena emateko epea bukatutakoan, Lehiaketako idazkariak informazio saio bat antolatuko du, eduki honekin:

- Lehiaketaren arauak aurkeztu eta haiei buruz jardutea.
- Kontsulten ondorengo ohar osagarriak.
- San Josepeko harrobira bista gidatua egitea.

Aurkezpen publikoa egingo da Arrasateko Kulturate kultura etxean, eta zer ordutan eta noiz egingo den aldez aurretik jakinaraziko dugu Udaleko web orrian.

Aurkezpen horretara joateko interesa dutenek hala jakinarazi beharko diote Lehiaketako idazkariari, Arrasateko Udalaren web orrian adierazi eta argitaratzen den egunean esandako eran. Hori guztia, zenbat etorriko diren jakiteko, areto egokiak erreserbatzeko, agiriak prestatzeko, eta abar.

G.- PROPOSAMENAK AURKEZTEARI BURUZ

Lehiaketan izena emanda dauden pertsonak proposamena aurkeztu dezakete Ideien Lehiaketan, hemen adierazten dugun eran:

Non aurkeztu:

Udalaren sarrera erregistroan – BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua), Maisu Arano pasealekua 8, bulego orduetan, lehenago adierazitako epean.

Geroago aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko, Postan epea amaitu aurretik aurkeztu zirela jasota geratu arren, baina bai onartuko dira Lehiaketako idazkariari bidali badiote telex, fax, telegrama bidez bidali izanaren egiaztagiria, posta ziurtatuaz bidali zuten egun berean. Edozelan ere, epea bukatzeko egunetik hamar egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, ezein kasutan ez da onartuko proposamenik .

Aurkezteko epea bukatutakoan, Lehiaketako idazkariak akta egingo du, eta hor idatziko dit zenbat lan jaso dituen eta haiei buruzko leloa.

Aurkezteko mugaeguna:

Proposamenak aurkezteko mugaeguna iragarriko da Udalaren web orrian, argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) eta zuzenean adieraziko zaio Lehiaketan izena emanda dagoen bakoitzari.

Anonimatua:

Epaimahaiak proposamen anonimoen berri baino ez du izango. Jasotako material Epaimahaikoak ez diren pertsona batzuek zabaldu eta prestatuko dute aztertzeko, eta kontuz ibiliko dira proposamenen anonimatua ez agertzeko, eta ezabatu egingo dute paketeetako bilgarrietan edo bidaltze albaranetan bidaltzaileari buruz egon daitekeen edozein aipamen.



Aurkezteko era:

Agiri guztiak aurkeztuko dituzte hiru gutunazal itxitan eta kanpoaldetik errotulaturik, fardel bakar batean pakaturik, Lehiaketaren izena eta aukeratutako leloa baino aipatzen ez dituztela kanpoaldean, eta guztiz gordeko dute bidaltzailearen anonimatua. Errotulazio hori era kontzentratuan agertuko dut, DIN-A4 formatuaren neurriak gainditu barik.

Identifikazio leloa honela osatuko dute, hitz bat eta lau digituko zenbaki bat.

Fardel barruan joango diren hiru gutunazalak izango dira: A gutunazala (Identifikazioa), B gutunazala (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena), eta C gutunazala (agiri teknikoak eta grafikoak), eta horietako bakoitzean agiri hauek egongo dira:

A gutunazala: Identifikazioa

Lehiatzailearen identifikazioa eta leloa izango ditu, eta bat etorriko da A eta C gutunazalen kanpoaldean agertzen denarekin, bai eta agiri grafiko nahiz agiri idatzi guztien kanpoaldean dagoenarekin ere.

Itxita entregatuko da eta proposamenaren talde idazlearen identifikazioa eta harreman datuak agertuko ditu, bai egileenak bai kolaboratzaileenak.

Gutunazalaren kanpoaldean hauxe baino ez dute idatziko:

San Josepeko harrobiaren hutsartearen eta Arrasateetik gertuko ingurunearen etorkizuneko diseinua egiteko Ideien lehiaketa

A gutunazala: Identifikazioa.

Lehiatzailea: < leloa >

Finalista gertatzen ez bada, lehiatzaileak nahiago badu anonimatua gorde, gutunazalaren kanpoaldean jaso beharko du, leloarekin batera, "ANONIMATUA" berba. Horrela, egilea anonimoa izango da aurkeztutako lanen erakusketa irekian nahiz paperean edo web orrian argitaratzen bada.

B gutunazala: Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena

Agiri hauek ekarri beharko dituzte:

1.- Sozietatea eratzeko Eskrituraren fotokopia konpultsatua eta IFK, pertsona juridikoak direnean, eta NAREN fotokopia konpultsatua, pertsona fisikoak direnean.

2.- Proiektuaren egileei eskatzen zaien tituluaren fotokopia, behar bezala konpultsatutik. Atzerriko titulua bada, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak behar bezala homologaturik aurkeztu beharko da.

3.- Berariazko adierazpen erantzulea, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 20. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena

4.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzaren betetzen dituela agertzen duen egiaztagiria, erakunde aginpidedunek egindako ziurtagirien bidez.



5.- Atzerriko enpresentzat eta pertsonentzat, edozein arlotako Espainiako Epaitegi eta Auzitegiaren jurisdikzioaren esanetara daudela dioden adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortu zitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, uko egiten diotela egokitu dakiekeen atzerriko foru jurisdikzionalari.

Gutunazalaren kanpoaldean hauxe baino ez dute idatziko:

San Josepeko harrobiaren hutsartearen eta Arrasatetik gertuko ingurunearen etorkizuneko diseinua egiteko Ideien lehiaketa

B gutunazala: Kontratatze gaitasuna eta kaudimena.

Gutunazal horretan ez da agertuko Lehiaketaren leloa, anonimotua bermatzeko, geroago azalduko dugun moduan.

C gutunazala: Agiri teknikoak eta grafikoak

Aurkeztu beharreko agiri teknikoak eta grafikoak hauek izango dira:

Panelak:

- Gehienez ere hiru (3) panel aurkeztuko dituzte, DIN-A1 formatuan, kartoi lumako arbel arinetan. 594 mm. x 840 mm. formatuko hiru paneletan datoz jasota agiri grafikoak, euskarri plano, zurrun, arin eta iraunkorren gainean muntaturik. Horizontalki aurkeztuko dituzte eta zenbakia eramango dute, 1etik 3ra.
- Agiri guztiak, grafikoak nahiz idatziak, hiru (3) panel horietan egongo dira jasota. Gutxieneko elementu moduan, hiru (3) panelek gutxienez hauek ekarri behar dituzte:
 - Proposatutako proiektuaren planta eta sekzioak.
 - Infografiak, perspektibak, eskema grafikoak, xehetasunak, argazkiak eta beste batzuk, lehiatzailearen ustez egokiak direnak proposamena hobeto ulertzeko.
 - Panel guztietan goi ezkerreko angeluan agertuko dira leloa, panelaren zenbakia eta Lehiaketaren izenburua.
 - Entregatutako agiri guztietan zehaztu behar dira lan eskalak, grafikoki irudikaturik.
 - Kolorea lehiatzaileak aukeratuko du. Lehiatzaile bakoitza edo lehiatzaileen talde bakoitza arduratuko da bere proiektuaren errepresentazio grafikoa emateaz geroago argitalpenetan erreproduzitu dadin, bai eta hiru panelen bikoizteaz ere.
 - Paneli buruzko aurrekoa errespetatu ezean, lehiatzailea kanpoan geratuko da.

DIN-A4 formatuko dossier idatzia, eta hauek sartuko dira hor:

- Memoria idatzia, gehienez ere 10 orri bi aldeetan DIN-A4 formatuan, eta proposamenaren deskribapena etorriko da hor, eskemekin batera aurkeztu daitekeena, azalpenak argitze aldera.
- Lehen aipatu diren hiru panelen kopia, DIN-A4 formatura tolesturik, paperean.



- Lehen aipatu diren hiru panelen kopia, DIN-A3 formatura murrizturik eta DIN-A4 formatura tolesturik, paperean.

Dosierraren 4 ale aurkeztuko dute, DIN-A4 formatuan.

Dosierraren azalean agertuko dira Lehiaketaren leloa eta izenburua.

Proposamenaren deskribapenaren laburpen orria, DIN-A4 formatuan etzanda, eta hauek sartuko dira hor:

- 200 hitzeko testua, proposamena deskribatuz, gaztelaniaz.
- 200 hitzeko testua, proposamena deskribatuz, euskaraz.
- 200 hitzeko testua, proposamena deskribatuz, ingelesez.

Testuak aurkeztu beharko dituzte 3 zutabetan, A4 etzaneko arbel arin batean, kartoi lumakoa.

CDRom edo DVD euskarriko agiriak, eta hauek jasoko dituzte:

- Panel bakoitzerako fitxategiak, horietako bakoitzaren .jpg artxibo bat. Leloaz izendatuko dira artxiboak, panelaren ordena zenbakiarekin batera, eta saiatuko dira tamaina egokia izan dezaten (ez 2 MB baino handiagoa), bereizmen egokiaz (gehienez gomendatzen da 200 dpi).
- DIN-A4 formatuan idatzita dagoen dosierraren fitxategiak, Word-en edo Adobe Acrobat-en formatuan.
- DIN-A4 etzanda doan proposamenaren deskribapenaren lapurpen orriaren fitxategia, Word-en edo Adobe Acrobat-en formatuan.

Entregatutako agiri guztiak erabili ahal izango ditu Arrasateko Udalak, agian geroago argitaratzeko eta, bestalde, proposamen guztiekin CD batean pilatzeko y Epaimahaiko kide guztiei banantzeko, erabakiak hartu baino lehen, proposamenak xehetasunez aztertzeko.

Agiri grafikoak fardel itxi batean sartuko dira eta haren kanpoaldean idatzita jasoko da hauxe bakarrik:

San Josepeko harrobiaren hutsartearen eta Arrasatetik gertuko ingurunearen etorkizuneko diseinua egiteko Ideien lehiaketa

C gutunazala: Agiri grafikoak.

Lehiatzailea: < leloa >

16. PROPOSAMENAK ONARTZEA.-

Arrasateko Udalaren idazkariak jaso eta Lehiaketako idazkariari entregatzea:

Goian adierazi bezala, Udaleko sarrera erregistroan aurkeztuko dira proposamenak, BAZen (Biztanleentzako Harrera Zerbitzua). Aurkezteko unean, udal langileren batek klabe bat emango dio aurkeztutako gutunazalari eta frogagiri bat emango dio klabe horrekin gutunazala aurkeztu duenari.



Sarrera erregistrotik Arrasateko Udaleko idazkari bidaliko zaizkio gutunazalak. Udal idazkariak kanpoaldeko bilgarria irekiko du, eta Lehiaketaren izenburua jasotzen duen zatia eta sarrera erregistroan emandako klabea gordeko ditu.

Halaber, B gutunazalak zenbatuko ditu (kontratatze gaitasuna eta kaudimena) korrelatiboki. Zerrenda bat egingo du, emandako zenbakia B gutunazalari lotzeko, dagokion leloarekin eta sarrera erregistroan esleitutako klabearekin, eta zerrenda hori gordeko du gutunazal itxi batean. Idazkariak zainduko du gutunazal hori.

Gero, A gutunazal guztiak pilatuko ditu, B gutunazal guztiak eta C gutunazal guztiak, eta Lehiaketako idazkariari emango dizkio.

Epaimahaiko Administrazio Batzordeak gutunazalak onartzea:

Lehiaketako idazkariak Epaimahaiko Administrazio Batzordeari bidaliko dizkio jasotako gutunazalak. Hauek osatuko dute epaimahai hori:

- Epaimahaiburua: Arrasateko Udaleko alkatea.
- Epaimahaikideak:
 - Udaleko Hirigintza saileko burua
 - Arrasateko Udaleko Ingurumen teknikaria
 - San Josepeko harrobirako Ideien Lehiaketaren ekimena sustatzeko Batzordeko ordezkarietako bat.
- Idazkaria: Hirigintza saileko Administrazio Orokorreko teknikaria

Batzorde horrek B gutunazaleko multzoa (kontratatze gaitasuna eta kaudimena) irekiko du, eta jasotako agiriak kalifikatuko ditu, eta hori guztia egiteko, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jardungo du.

Hartarako, argibideak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte, lizitatzailen gaitasunari eta kaudimenari buruz, Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatzen duen bezala, eta horiek ekarri beharko dira bost egun naturaleko epean. Argibideak edo informazio osagarriak eskatuz gero, Batzordeak emango die horien berri ahoz interesdunei. Era berean, aurkeztu diren agiritan zuzendu daitezkeen akatsen berri emango du Epaimahairen Administrazio Batzordeak, hiru egun balioduneko epean lizitatzailak konpondu edo zuzendu ditzaten antzemandako akatsak.

Batzordeak, aurkeztutako agiriak kalifikatu eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein lehiatzaile egokitzen zaizkien Lehiaketaren hautaketa irizpideei, eta berriaz adieraziko du nortzuk onartu dituen, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

Gutunazalen bat onartzen ez bada, udal idazkariari eskatuko diote B gutunazalari esleitutako zenbakiari dagokion leloak argitzeko. Kanpoan utzitako gutunazalari dagokion leloaren berri jakin eta gero, lema horrekin aurkeztu dituzten A eta C gutunazalak kenduko dituzte Lehiaketatik.



17. PROPOSAMENAK JENDE AURREAN ERAKUSTEA.-

Lehiaketaren lehen fasea: Aurkeztutako lan guztiak erakustea eta Herritarrei kontsulta egitea.

Erakusketa publiko bat antolatuko da, Lehiaketaren lehen fasean aurkeztutako proposamen guztiakin. Erakusketa noiz izango den jende aurrean iragarriko da Erakusketa hori Kulturate kultura etxean egingo da.

Epaimahaiak, Lehiaketako babesleek eta Lehiaketako erakunde kolaboratzaileek bisitatuko dute erakusketa. Halaber, interesa duten herritar guztiak ere bisitatu ahal izango dute aurkeztutako lanen erakusketa.

Era berean, herritarrek parte hartzeko prozesu bati ekingo zaio, eta hori herritarrek, botazio bidez, aurkeztutako proposamenetako bat aukeratuko dute. Bosgarren proposamen finalista izango da hori, gainontzeko lau Proiektu finalistak Epaimahaiak aukeratuko ditu eta. Herritarrek gehiengo botazioaz aukeratzeko dutena bat etorri gero Epaimahaiak aukeraturakoren batekin, bosgarren finalista izango da jendeak aukeraturakoen artean bigarrena, eta horrela bata bestearen segidan.

Epaimahaiak, Eusko Jaurlaritzako Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzarekin elkarlanean, artikulatuko du zelan eta nola egingo den bosgarren finalista aukeratzeko herritarren botazioa. Epaimahaiak berak baloratuko du aurrekoaz gain informazio gehiago eskatuko duen, prozesuaren inguruan.

Lehiaketaren bigarren fasea: bost finalisten aurkezpen hitzaldia, bakoitzak aurkeztutako proposamenak defendatzeko.

Lehiaketaren bigarren fasea da Lehiaketa murriztu bat, aukeraturako bost egileekin, eta hortik aterako da proiektu irabazlea eta bigarren saria.

Bost lan finalistak aukeratu eta gero, egileen anonimatua hautsiko da, eta aukeraturako lanen leloei dagozkien A gutunazalak irekiko dira.

Aurkeztutako proposamenak garatu eta osatu beharko dituzte egile horiek, proposamenok ahalik eta zehaztuen egon daitezzen, ikuspegi tekniko eta ekonomiko batetik. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Power-point-eko aurkezpen bat, era orokorrean proposamenaren zirriborroa egiteko, gehienez ere 50 diapositibaz.
- Aurkeztutako proposamenaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterketa bat, inbertsioak, errendimenduak eta gastuak kontuan hartuko dituen.
- Eraikuntza esku-hartze guztiak biltzen dituen aurreproiektu bat, bai harrobian bai haren ingurunean.

Agiri horiek aurkeztuko dira adieraziko den egun batean.

Jendaurreko erakusketa-hitzaldi bat antolatuko da Kulturaten, eta bost egileetako batek aurkeztu eta defendatuko du bere proposamena. Hitzaldia izango da publikoa eta aldeztu aurretik adieraziko du Udalak noiz izango den.

18. EPAIMAHAIAREN JARDUERA.-

A.- EPAIMAHAIAREN ERAKETA

Lehiaketan proposamena aurkezteko epea ireki baino lehen, Epaimahaiko kideen eta haien ordezkoen izenak jakingo ditugu. Epaimahaiaren izenen osaera, jakin bezain laster, lehiatzaileei iragarriko zaie, Arrasateko Udalaren web orriaren bidez eta posta elektronikoaren bidez.

Epaimahai eratzeko, quoruma egon beharko da, eta hori beteko da kideen erdia baino gehiago bertaratzuz gero.

Epaimahaiburua izango da Arrasateko Udaleko alkatea.

Lehen bilkuraren hasieran, lan metodoa zehaztuko du Epaimahaiak.

Epaimahaiko kideek adieraziko dute ez daudela sartuta karguaz jabetzeko ezein bateraezintasun kausatan. Bateraezintasunen bat izanez gero, horrek eragindako epaimahaiko kideak utzi egin beharko du Epaimahaia eta hark ordezkatzan zuen Erakundeko edo entitateko beste pertsona batek ordeztuko du.

B.- EPAIMAHAIAREN FUNTZIONAMENDUA

Epaimahaiak, bere eraketako lehen bilkuran, kideen artean izendatu ahal izango du Batzorde Tekniko bat, aurkeztutako lanen azterketa zorrotz eta sakonaz arduratzeko. Batzorde Tekniko horrek, gero, Epaimahaiko gainerako kideen aurrean azalduko ditu aurreko azterketatik ateratako konklusioak.

Epaimahaiaren berezko erabakiak hartzeko (lan finalistak aukeratzea, lehiaketako irabazlea aukeratzea...), osoko bilkuran jardungo du, eta bilerak egiteko, asistentzia quorum baldioduna izango da kideen erdia baino gehiago. Botoen gehiengo soiluz hartuko dira akordioak, eta berdinketa gertatzen denean, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du.

Gainerakoak egiteko (agiriak onartzea, egunak jartzea, erakusketak antolatzea, eta abar), delegazioak egin ahal izango ditu bai Epaimahaiaren Administrazio Batzordean bai Epaimahaiaren Batzorde Teknikoan, edota sortzea bidezkoztat jotzen duen beste edozein Batzordetan.

Epaimahaiak independentzia osoa izango du bere erabakiak edo diktamenak hartzeko, era anonimoan aurkezten dizkieten proposamenetan oinarriturik eta Lehiaketako arau hauetan ezarritako irizpideak bakarrik aintzat harturik.

Erabakitzeke autonomia izango du Epaimahaiak.

Epaimahaiko kideek ez dute jasoko dietarik bileretara etortzearen truke.

C.- EPAIMAHAIAREN EGITEKOAK

Hona hemen Epaimahaiaren egitekoak:

- Agiriak aztertzea eta jasotako lanak behin betiko onartzea.



- Onartu ez diren lanak kanpoan uzteko proposamen arrazoitua, eta aktan jasoko dira, eta arrazoiak izan daitezke:
 - Epez kanpo entregatzea edo arau hauetan ezarritakoei egokitu barik.
 - Nahiko agiri ez edukitzea, proposamenak egoki baloratzeko.
 - Anonimatua agerian uztea, bai edozein bidetatik egilea izatea agertzeagatik, bai proposamenaren egilearen izenaren elementu grafiko identifikatzaileak aurkezteagatik.
 - Edozein presio sortzeagatik Epaimahaiko kideen artean.
- Aurkeztutako proposamenak aztertzea eta horiek baloratzeta, eta horretarako, bidezkotzat jotzen dituen aholkuak eskatu ahal izango ditu.
- Agiriak aztertzeke, anonimatua zorrotz zaindu eta betetzea.
- Behin betiko erabakiaren proposamena: Lehiaketaren erabakia arrazoitu egin beharko da, sariak hartzen dituzten proposamenei buruz. Erabaki hori jasotzen duen aktan, arrazoi horiek agertuko dira.

Egiten dituen jarduera guztien akta egingo du Epaimahaiko idazkaria.

D.- EPAIMAHAIAREN LAN METODOA

Epaimahaia subiranoa da lan egiteko era arautzeko, uneoro proposamenak baloratzeko irizpideak eta arauetan jasota dauden ponderazioa kontuan izanik.

Proposamenak hautatzeko prozedura bat erabakiko du Epaimahaiak, eztabaida sisteman eta elkarren segidan bazterrean uzteko sisteman oinarriturik, edota puntuazio sistemetan.

Botazio sistemak aukeratuz gero, erabakiak hartuko da bertaratuen gehiengo soilez. Berdinketaren bat izanez gero, berriro eztabaidatu eta botatuko dute. Bigarren botazioan berdinketak jarraituz gero, epaimahaiburuen kalitateko botoak erabakiko du.

Behar beste bilera egingo du Epaimahaiak.

Erabakiak hartu baino lehen, Epaimahaiak jarraibide argiak aztertu eta ezarriko ditu, ebaluatu beharreko irizpide bakoitzaren esangurari eta garrantziari buruz.

Lehiaketaren bi baseetan Epaimahaiaren jarduna zehaztuko dute hemen oraintxe aipatuko ditugun gauzek.

Lehiaketaren lehen faseko jarduera

Epaimahaiak Proiektuak aztertuko ditu eta lau aukeratuco ditu, eta horiek bigarren fasera pasatuko dira.

Saritutako proposamenak aukeratzeko jarraitutako irizpideen laburpen bat idatzi eta argitaratuko du Epaimahaiak. Emaitzaren berri emango du Arrasateko Udalak.

Lehiaketaren bigarren faseko jarduera

Epaimahaia hitzaldietara joango da eta finalistek aurkeztutako agiriak aztertuko ditu. Horiek ebaluatuko ditu.

Saritutako proposamenak aukeratzeko jarraitutako irizpideen laburpen bat idatzi eta argitaratuko du Epaimahaiak. Emaitzaren berri emango du Arrasateko Udala keta, horrela, Lehiaketaren bigarren fasea amaituko da.

Epaimahaiak erabaki dezake ez ematea saririk. Hala izanez gero, zergatik izan den azaldu eta jakinaraziko du.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

E.- PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Erabakiak hartu baino lehen, Epaimahaiak jarraibide argiak aztertu eta ezarriko ditu, ebaluatu beharreko irizpide bakoitzaren esangurari eta garrantziari buruz.

Aurkeztutako proposamenak baloratuko ditu Epaimahaiak, irizpide hauen arabera:

▪ **Hirigunean egokitzeko irizpideak**

- Ingurunean uztartzeko maila
- Hornidura oreka, ekipamenduei dagokienez:
 - Hurbilen dagoen inguruneari buruz
 - Udalerriaren gainontzeko eremuei buruz
 - Eskualdeari edo Lurralde Historikoari buruz
- Oinezkoen eta ibilgailuen sarbideak (motordunak eta motorgabeak)
- Mugako hiriguneen tratamendua

▪ **Diseinuko irizpideak**

- Proiektuaren eta tokiaren arteko lotura
- Proposamenaren irudia, originaltasuna eta erakargarritasun globala
- Berrikuntza maila, arkitektura eta hirigintza ikuspegitik
- Barne guneen tratamendua
- Autopistaren integrazioa



- Balio monumentalak: forma keta espazioak, barne eta kanpo espazio errepresentatiboen estetika
- Izaere espezifikoak duten kalitate teknikoak
- Proposamenaren kalitate globala, arkitektura eta hirigintza ikuspegitik

▪ Ingurumen irizpideak

- Oraingo begi impaktuaren gutxitze maila
- Paisaia integrazioa
- Natura guneekin duen “elkarrizketa”
- Berrikuntza maila, ingurumen ikuspegitik
- Uraren tratamendua
- Konforta eta ingurumen eraginkortasuna elkartzea (aireztatze naturala, iluminazio naturala, eta abar)
- Proposamenaren kalitate globala, ingurumen ikuspegitik

▪ Energia irizpideak

- Energia berriztagarrien eta energia aprobetxamenduen iturriak erabiltzeko planteamenduaren kalitate maila eta egingarritasuna
- Energia teknologia berritzaileen aplikazio maila (eguzki teknika pasiboen integrazioa, panel fotoboltaikoak, barnealdea egokitzeko energia geotermalen erabilera, eta abar)
- Energia autosufizientziaren portzentaia estimatua, pentsatutako erabilerek planteatutako beharrei buruz
- Berrikuntza maila, arkitektura eta energia soluziobideen integrazioan
- Proposamenaren kalitate globala, energia ikuspegitik

▪ Bideragarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideak

- San Josepeko harrobiaren testuinguruan esku hartzeko bideragarritasuna eta gaitasuna
- Esku-hartzearen autosufizientzia maila
- Proposatutako erabileren egokitasuna eta sinesgarritasuna eta lurraldearekin duen harremana
- Errentagarritasun soziala eta onura sozialak
- Inpaktu ekonomikoa
- Proposamena garatzeko egingarritasuna
- Proposamenaren modularitatea



- Apurka-apurka garatzeko aukera eta bateragarritasuna
- Berrikuntza eta garapen teknologikoa bultzatzeko aukerak, Euskadin arkitekturari, berrikuntzari, ingeniartzari eta energiari buruz.

F.- ERREFERENTZIAKO IRIZPIDEEI EMANDAKO PONDERAZIOA

Lehen une batean, Lehiaketako lau finalistak aukeratzeko eta, gero, lehiaketaren irabazlea aukeratzeko, Epaimahaiarentzat balioa duten irizpideen ponderazioa hauxe izango da:

▪ Diseinuko irizpideak.....	30 puntu
▪ Ingurumen irizpideak.....	20 puntu
▪ Bideragarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideak	20 puntu
▪ Hirigunean egokitzeko irizpideak	15 puntu
▪ Energia irizpideak	15 Puntos

G.- EPAIMAHAIAREN ERABAKIAREN AKTA

Epaimahaiak erabakiaren akta egingo du eta era elkartuan azalduko du zergatik uste duen proposamen sarituak merezi dutela hori. Epaimahaiko kideek sinatuko dute akta.

Kideetako batek hala nahi izanez gero, agertu ahal izango du ez dagoela ados y zergatik eman duen botoa.

Epaimahaiak iritziz gero proposamen sarituak behar duela hobetzea aspektu garrantzitsuren batean, funtzio, eraikuntza, konposizio edo ekonomia arloan, aktan agertuko du.

H.- EMAITZAK IRAGARTZEA

Epaimahaiak berehala emango die erabakiaren berri antolatzaileei, eta horiek Lehiaketaren emaitza iragarriko dute.

Epaimahaiaren erabakiaren berri emango diote Lehiaketan parte hartu duen bakoitzari, eta jendeari jakinaraziko diote iragarkien bidez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) eta Arrasateko Udalaren web orrian (URL <http://www.arrasate-mondragon.org>).

19. XEDAPEN OROKORRAK.-

Arrasateko Udalak Lehiaketara aurkeztu diren proposamenen gainean etorkizunean erabakiak hartzeko aukera



Lehiaketa honen helburua da Ideia bat aurkeztea, San Josepeko harrobiaren hutsarteari dagokionez, Udalak ideiak lortze aldera, oinarri izango direnak etorkizunean hirigintza eta eraikuntza jarduerak garatzeko. Saritutako Proiektuak garatu, interpretatu edo aldatu ere egin ahal izango ditu Arrasateko Udalak, bai gainerako lehiatzaileek agertutako gainontzeko ideiak ere. Lehiaketan parte hartu eta proposamenak aurkeztuz gero, egileek Arrasateko Udalari laga eta ematen diote proposamen horietan jasota datozenak garatzeko aukera, baina egileek ez dute izango egitea Jabetza Intelektualeko edo antzeko eskubideetan oinarritutako erreklamaziorik.

Berariaz ahalmena ematen diote Udalari garapen horretan nahi beste aldaketa egiteko, baina Ideiaren egilea ezingo da sentitu kalteturik bere osoan Ideia errespetatu ez delako.

Aurkeztutako proposamenak erakutsi, zabaldu eta argitaratzea

Aurkeztutako proposamenak erakutsi ahal izango dituzte jende aurrean Arrasateko Udalak, Erakunde babesleek eta interesa izan dezaketen Administrazioiek.

Lehiaketaren klausurak aukera ematen du aurkeztutako lanekin erakusketa bat antolatzeko eta eztabaida foro bat ere bai, irabazi duen proiektuaren gainean eta praktikan jarri ahal izateko aukeraren gainean.

Lehiaketan aurkeztutako proiektu guztiak aurkeztuko dira erakusketan. Erakusketa horren bertsio ibiltari bat eskaini ahal izango zaie interesa duten administrazioei.

Halaber, hedabideetan zabaldu eta hedatu ahal izango dira lan horiek guztiak, izaera orokorrekoetan nahiz izaera bereziko hedabideetan, eta argitaratu ahal izango dira beste edozein formatutan, antolatzaileek hala iritziz gero. Hartarako, parte hartzaileek ustiatzeko eskubideak lagatzen dizkiote Arrasateko Udalari, Lehiaketaren eta haren emaitzen publizitatea egiteko. Edozelan ere, proposamenak erakutsi, zabaldu eta argitaratuko dira kostu barik egileentzat.

Antolatzaileek eskubidea erreserbatzen dute bere esku dauden proposamen guztiak libreki argitaratzeko. Egilearen edo egileen izenarekin erakutsi edo argitaratuko dira proposamenak: taldeko burua eta elkartekideak, nahiz eta saririk jaso ez eta hala eskatzen duten lehiatzaileek anonimatuan jarraituko duten.

Proposamen sarituen azalpenezko agiri grafikoak web bidez zabalduko dira, eta egokitu edo manipulatu ahal izango dira tamaina murrizteko bakarrik, Internet bidez hobeto nabigatu eta ibiltzeko.

Lehiatzaileen anonimatua kontserbatzea

Egileek ezingo dituzte publiko egin haien proposamenak, Lehiaketako finalisten izena jendeak jakin baino lehen, bestela Lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Beste batzuekiko erantzukizunak

Lehiaketako parte hartzaile guztiak konpromisoa hartzen dute eta berariaz adierazten dute lana egitean ez dutela hautsi, jakinaren gainean, beste batzuen alde egon litekeen edo beste batzuekiko erantzukizunean erori litekeen aurreko eskubiderik. Hala izanez gero, horien erantzulea izango da eta beregain hartuko du Arrasateko Udalak izan dezakeen edozein erantzukizun, bai eta gastu judizialak eta kalte-galerak kalte-ordaintzea ere.

Arauak onartzea



Lehiaketan parte hartzen dutenek parte hartzen duten une berean onartzen dituzte arau hauek nahiz Epaimahaiaren akordioak eta erabakia, eta apelaezina izango da. Berariaz onartzen dute Arrasateko Udalak etorkizunean saritutako Proiektuak garatu, interpretatu edo aldatzea ere, bai eta gainerako lehiatzaileek agertutako gainontzeko ideiak ere.

Epaimahaiak berak erabakiko du Arauetako edukiak interpretatzeko edozein zalantzari buruz, bai eta Lehiaketan zerikusia duten beste aspektu batzuk ere, helburu izango dutenak erabakitzea, lehiatzaileen eskubideak gutxitu barik.

Bateraezintasunak

Ezingo dute parte hartu Lehiaketan:

- Lehiaketaren babesle direnak
- Epaimahaiko kideak
- Aurreko ataletan sartuta dagoen edozein pertsonak parte hartzen duen sozietateak
- Epaimahaiko kideetako baten estudioan edo egitura profesionalean lan egiten duten pertsonak

Lehiatzailek edo lehiatzaileen taldeek ezin dute aurkeztu Lehiaketa amaitzen den eguna baino lehenago argitaratu duten proiekturik.

Kanpoan uzteari buruz

Kanpoan utziko dira Epaimahaiaren iritziz Lehiaketa hau agintzen duten arauci egokitzen ez diren proposamenak, Lehiaketan ezarritako gutxienekoa betetzen ez dutenak edo proposamena osorik aztertu eta haren berri jakiteko nahiko dokumentazioa ekarri ez dutenak.

Aseguruak eta garraioak

Lehiatzaileen ardura da ziurtatzea bidalketak, eta horien garraio gastuak ere bai.

ARAUBIDE JURIDIKOA

20. ARAUBIDE JURIDIKOA.-

Lehiaketa hau arau hauek arautuko dute:

- Arau hauek
- Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



- Aplikatzekoak diren gainerako administrazio arauak



I. ERANSKINA

IZENA EMATEKO EREDUA

ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEKO DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETAN (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA) IZENA EMATEKO ESKABIDEA.

Jakin dugu Arrasateko udalak deitu duen Lehiaketaren berri, hau da, “ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEKO DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETA (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA)” izenekoa, eta adierazten dugu gaitasuna dugula lehiaketan parte hartzeko, bai guk sinatzen dugunok bai ordezkatzan ditugun sozietateak, eta eskatzen dugu hor parte hartzeko. Horretarako, izena emateko eskabide hau aurkeztu dugu, Taldean biltzen garen arkitekto, injineru eta sozietateetako ordezkariak, proposamenaren egile direnak, behar bezala sinaturik.

Hauxe diogu sinatzaileok:

1.- Aztertu ditugula Ideien Lehiaketa honetako arauak eta horien berri dakigula.

2.- Ados gaudela horiekin eta oso-osorik onartzen ditugula, ezer aldatu barik.

3.- Lehiaketa horretan proposamen bat aurkeztu nahi dugula.

4.- Proposamenaren egileak gara pertsona eta sozietate hauek:

-jn/and, NA zk., helbidea (non)

-jn/and, NA zk., helbidea (non)

...

- Lehen sozietatea: IFK:, helbidea,
ordezkaria:NA zk....., helbidea ...

- 2. Sozietatea: IFK:, helbidea,
ordezkariaNA zk., helbidea ...

5.- Antolatzaileekin solas egiteko, proposamenaren egileak Taldeko buruak ordezkatzeko ditu:
..... jaun/andrea

6.- Solaskidearen harreman datuak dira:



Helbidea:

Posta kodea:

Kalea:

Telefono finkoa:

Telefono mugikorra:

Fax:

Posta elektronikoa:

(non) (e)an, 2008koaren ...(e)an

